



ZESTOAKO UDALA

## 114. ALKATETZA DEKRETUA

**JOSE FRANCISCO MENDIZABAL IRIGOYEN** jaunak, **ZESTOAKO UDALEKO ALKATEAK**, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalak xedaturikoaren arabera,

### IKUSIRIK

I.- Logopedia zerbitzua kontratatzeko, kudeatzeko eta finantzatzeko, Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako udalek 2014ko urtarrilaren 1ean lankidetza hitzarmena izenpetu zutela.

Aipatu Lankidetza Hitzarmenaren bigarren klausulan ondokoa xedatzen dela zerbitzuaren kontratazioaren ardurari dagokionean: *“Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udaletako ordezkariak, hitzarmen honen bitartez, **hiru udalerrietan kokaturiko ikastetxeetako ikasleei logopedia zerbitzua kontratatzeko enkargua Azkoitiko udalari egin diote, beharrezkoa den lizitazio-jardunbidea gara dezala. Era honetan, aipatu Udaleko zerbitzuek dagokion kontratazio espedientea osatu ondoren, zerbitzuaren lizitazioa izapidetuko dute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua arautzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilean (edo hori ordezkatzan duena) xedatutakoaren arabera.”***

II.- Hori horrela, Azkoitiko udaleko Alkate-Udalburuak 2017ko urriaren 20an emandako Dekretu bidez, *“Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako udalerrietan kokaturiko ikastetxe desberdinetako lehen hezkuntzako ikasleei logopedia zerbitzua”* ematea xede duen kontratua, publizitatetik gabeko jardunbide negoziatuaren bidez esleitzeko kontratazio espedientea, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria eta kontratazio-jardunbideari hasiera ematea onartu zituela, gastua fiskalizatzea ere onetsiz.

III.- Aipaturiko espedientean, indarrean dagoen legedian ezarritako dokumentuak jasota daudela. Esleipen-espeditentean; kontratua publizitaterik gabeko jardunbide negoziatu bidez bideratu dela egiaztatu dela, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 169., 170. eta 174. e) artikuluetan aurreikusi eta arautu bezala. Izapidetzea ohikoa izan dela eta esleipendunaren aukeraketa Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 11. klausulan xedaturiko irizpide tekniko eta ekonomikoen arabera balioetsi dela.

IV.- Kontratazio jardunbideari hasiera emateko ebazpenean zehazturiko hiru enpresei gonbidapena luzatu zitzaizela, EDURNE UZKUDUN GURRUTXAGA andreari, HARREMANAK HEZKUNTZA ELKARTEARI eta IZADIA GABINETE DE PSICOLOGÍA Y LOGOPEDIA enpresari, 15 egun naturaleko epea emanez proposamenak aurkezteko, gonbidapen-gutuna jasotako biharamunetik zenbatzen hasita.

V.- Esleipen jardunbidean, gonbidapenak igorri zitzaizkien hiru enpresetatik, batek aurkeztu zuela lizitazioan parte hartzeko proposamena; EDURNE UZKUDUN GURRUTXAGA profesionalak hain zuzen ere.

**VI.-** Dokumentazio orokorrari buruzko gutun-azala - A gutun-azala – 2017ko azaroaren 15eko egintzan irekita, kalifikatuta eta zuzen zegoela egiaztatuta, egintza berean, lizitatzailerak bakarren proposamen ekonomikoa eta negoziazio gai diren irizpideak deituriko gutun-azala – B gutun-azala – ireki zela eta aipatu dokumentazioa Kultura Saileko Arduradunari helarazi zitzaiola, horrek aipatu proposamena Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 11. klausulan xedaturiko irizpide teknikoak eta ekonomikoa aintzat hartuta negoziatu eta balioetsi zezan, zegokion balioespen txostena emanaz.

Kultura Saileko Arduradunak, proposamenaren inguruko negoziazioa Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 13. klausulan xedaturiko jardunbideari jarraituz burututa eta balioespena aipatu pleguen 11. klausulan xedaturiko irizpideen arabera eginda, 2017ko azaroaren 24an emandako txostenean, ondorioztatu duela lizitatzailerak bakarra izaki, aurkezturiko proposamen tekniko eta ekonomikoa aztertuta eta udalak kontratatzea xede duen zerbitzuaren baldintza tekniko eta ekonomikoa – pleguetan ezarritakoak – aintzat hartuta, aipatu profesionalak aurkezturiko proposamen teknikoak eta ekonomikoa Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren eta Preskripzio Teknikoen Orriaren klausuletan ezarritakoak betetzen duela eta lizitatzailerak bermatu duela zerbitzua klausula horietan ezarritako baldintza tekniko eta ekonomikoen arabera eskainiko duela. Beraz, EDURNE UZKUDUN GURRUTXAGA andreak aldeko esleipen proposamena luzatu diola kontratazio-organoari.

**VII.-** 2017ko azaroaren 28an emandako Probidentziaren bidez, abantailarik handiena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzailerari, EDURNE UZKUDUN GURRUTXAGA andreaki, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 146. eta 151.2 artikuluek eta Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 14. klausulan ezarritako dokumentazioa aurkezteko errekerimendua luzatu zitzaiola.

**VIII.-** EDURNE UZKUDUN GURRUTXAGA andreak, 2017ko abenduaren 11n – epe barruan -, 2.400,00 €ko behin betiko bermea eratu izanaren egiaztatzea eta horrekin batera errekerituriko gainontzeko agiriak aurkeztu dituela.

### **KONTUAN HARTURIK**

Errekerituriko dokumentazioa aztertu ondoren, kontratuaren esleipena Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 151. artikuluan xedaturikoarekin bat, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 15. klausulak ezarritakoaren arabera egin behar dela.

Aipatu klausulak, *2014ko urtarrilaren 1ean, Azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoako udalen artean Urola Erdiko ikasleei eskainiko zaien logopedia zerbitzua kontratatzeke, kudeatzeko eta finantzatzeko izenpeturiko lankidetzaren hitzarmenaren bigarren estipulazioak xedaturikoa aintzat harturik, kontratazio jardunbidea garatu ostean, **kontratuaren esleipena udal bakoitzaren organo eskudunaren ebazpenaren bitartez gauzatuko dela xedatzen duela** eta ondoren hiru udaletako ordezkariak eta esleipendun suertatzen den lizitatzailerak kontratu bakarra izenpetuko dutela.*

Beraz, Zestoako udalari dagokionean eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, ondokoa

## EBATZI DUT

**LEHENA.-** *“Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako udalerrietan kokaturiko ikastetxe desberdinetako lehen hezkuntzako ikasleei logopedia zerbitzua”* eskaintzea xede duen zerbitzu kontratua, EDURNE UZKUDUN GURRUTXAGA andreari esleitzea.

**BIGARRENA.-** Kontratuaren banakako prezioak ondorengoak izango dira:

- **32,30€/zerbitzu orduko, kontzeptu guztiak eta zergak barne.**
- **0,29 €/km, joan-etorriengatik.**

Banakako prezioak izaki, zerbitzuaren gehieneko aurrekontuak lehen urterako ezingo du 24.000 € (BEZa barne) gainditu.

Kontratuaren **iraupena BI (2) URTEKOA izango da**, kontratu administratiboa formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita eta urtebetez luzatu ahal izango da, gehienez hiru (3) urterako, berariaz eta bi aldeen adostasunarekin.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauen berri ematea Azkoitiko udalari, kontratua izenpetu aurretik, esleipenaren inguruko ebazpena har dezan.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hauen berri EDURNE UZKUDUN GURRUTXAGA andreari eta udaleko Kontu-hartzailetzako Departamenduari ematea.

**BOSGARRENA.-** Esleipendunari errekeritzea, **jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita gehienez hamabost (15) laneguneko epean kontratu hau formalizatzer**a joan dadin Azkoitiko Udalera.

**SEIGARRENA.-** Kontratuaren formalizazio iragarkia Zestoako udaleko kontratugilearen profilen argitaratzea eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat, esleipen honen berri ematea ere udaleko gardentasunaren atarian.

**ZAZPIGARRENA.-** Kontratu honen oinarrizko datuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.

***Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari.***

## ERREKURTSOAK

*Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsua aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.*

*Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez, edo aipatu errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako*

*Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.*

*Bestaldetik, Administrazioak birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko, birjarpen errekurtsua tartekatatu zuen datatik kontatzen hasita.*

Agindu eta izenpetzen duena Alkate jaunak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua, 2017ko abenduaren 14an.

**ALKATEAK,**

**Nire aurrean  
IDAZKARIAK**